JARDUKETA IZENA	Txarutako errekan zeharkako hesiak ezabatzea (C9)

Zer KBEtan edo Kontserbazio Bereziko Eremutan dihardugun

Bidasoa Ibaia KBE

LOTURA NATURA 2000REKIN

Ekintza KBEa Kudeatzeko Planaren helburu operatibo hauen baitan kokatua dago:
- Helburu Operatiboa. Ibai Sistema kudeaketarako funtsezko elementuaren ur korridorean dauden oztopoak iragazkortzea.
- 1.2.1. Helburu Operatiboa. Ibai Sistema kudeaketarako funtsezko elementuaren ur ibilietako ur emarien erregimena hobetzea.
  1.7. Neurria: Jarraipena ematea Nafarroako Gobernua Bidasoaren arroan gauzatzen ari den neurriei presak iragazkortzeko eta eraisteko.
-5.1.2. Helburu Operatiboa. Izokin arruntaren, kolakaren, itsas lanproiaren eta burtainaren habitataren baldintzak hobetzea.
  5.1.2.4. Presak iragazkortzeko proiektuak diseinatu eta gauzatzea burtainarentzat

KBEko funtsezko elementu onuradunak

Hona hemen KBEko funtsezko zer elementuk jaso duten onura: “Ibai-sistema”, “Ibai-habitatak”, “Izokin arrunta, kolaka, itsas lanproia eta burtaina”, "Bisoi europarra eta igaraba arrunta” eta “Muturluze piriniotarra”.
Ekintza honen helburu nagusia **burtaina** da (*Cottus aturi*). Txarutako errekako burtaina populazioa Iberiar Penintsulako hiru populazio ezagunetako bat da, baina egoera arras hauskorrean dago, galtzeko arriskuan, tamainaz txikia delako eta bakartuta dagoelako.

JARDUKETA LEKUA ETA UDALERRIAK:

Donamaria

Data

2017

Aurrekontua

20.000 €

Proiektuaren ekintza loturikoak

Jarraipen geomorfologikoa egitea, eta halaber, arrain-espezieen eta ugaztun urtarren jarraipena egitea.

Lanaren deskribapena - HELBURUAK

Txarutako errekaren behe-tartean zeharka dauden bi oztopo ezabatzea, ibaiaren konektibitatea hobetzea, espezieen joan-etorria erraztea, eta tarte horretan, uholde arriskua murriztea. Ekintza ezinbestekoa da Txarutako errekako burtaina populazioaren kontserbazio egoera lortzeko, horixe baita helburua.

Lanaren deskribapena - AURREKARIAK

Txarutako erreka Bidasoa ibaiaren bigarren mailako ibaiadarra da (Ezpelura errekaren bidez). Haren goi eta erdiko tartea Belate KBEan daude, eta beheko tartea, berriz, Bidasoa Ibaia KBEan.
Txarutako errekaren behe-tartearen ibilguaren ezaugarri ekologikoei esker, egun Europan dagoen burtaina (*Cottus aturi*) populazio gutxietako bat mantendu da bertan. Burtaina arrain txikia da, eta ibaiko ohean aurkitzen du elikagaia. Gaitasun oso mugatua du ibaian sakabanatzeko eta mugitzeko, bai eta joan-etorrietan oztopoak gainditzeko ere.

Lanaren deskribapena - HASIERAKO ETA EGUNGO EGOERA

Txarutako errekaren behe-tartean, zeharka dauden bi oztopok eten egiten dute burtainaren joan-etorria. Bi oztopoak ezabatzea proposatu da, espeziarendako habitataren konektibitatea hobetzeko asmoz eta, horrela, haren kontserbazio egoera hobetzeko.

Proposatu da **hegoaldeko presa** eraisteko proiektua egitea, eta gero, gauzatzea. Harri-hormaz egindako presa txikia da (5,8 m luze, eta 1,50 m garai), errota zahar bati lotua. Errota gaur egun eroria dago, eta Konfederazioak (CHC) ez du emakidarik emana. Ura hartzeko ubide zaharra lohiz betea dago eta landarez estalia.

Bigarren presa bat ere badago, **iparraldeko presa**. 5 metro inguru ditu zabaleran, jauzia 1,70 m da, eta 0,85 m du, berriz, erdiko eskotaduran. Ura hartzeko ubide bat dauka "Donamariako Errotari" lotua, oraindik ere jardunean, eta oraindik ere, ura sistema osotik pasatzen da. Azterlan bat egitea proposatu da presaren konektibitatearen hobekuntza aztertzeko, baina emakidadunari errotarako behar duen ur-emaria bermatuta.

JUSTIFIKAZIOA Zer lortu nahi dugu? - ESPERO DIREN EMAITZAK

Emaitza hauek espero dira:
Iragazkortasun xedea da Ibai Konektibitatea adierazlearen balio hau lortzea: "**Oso ona**".
- Burtainarentzat eskura dagoen habitata handitzea, habitat potentzialaren luzera modu nabarmenean handituz.



Irekibai · Natura 2000 · Life · Gipuzkoako Foru Aldundia · Diputación Foral de Gipuzkoa · ura · hazi · Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco · Nafarroako Gobernua · Gobierno de Navarra · Nafarroako Ingurumen Kudeaketa, S.A. · Gestión Ambiental de Navarra, S.A.

C9:Txarutako errekan zeharkako hesiak ezabatzea